

Banatu dira ikasketa bukaerako orlak

2015/06/08

Pasa de ostiralean, ekainak 5, Arrasateko Amaia Antzokian egindako ekitaldi publikoan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 2014-2015 ikasturteko 4. mailako ikasleek orla jaso zituzten. Hala, 700 gonbidatu baino gehiagoren aurrean, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazio graduetako 186 ikasleek jaso zituzten ikasketa bukaerara iritsi direnen oroigarria.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Flickr kontuan jaso ditugu orla banaketa ekitaldiaren argazki guztiak:

- Haur Hezkuntzako ikasleen talde osoaren argazkia.
- Lehen Hezkuntzako ikasleen talde osoaren argazkia.
- Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleen talde argazkia.
- Argazki bilduma osoa: ikasleak launaka orlak jasotzen, hizlariak, aretoko irudiak, luntxa...

Inguruko hedabideek ere bildu dituzte ekitaldiko irudiak:

- Goiena.eus
- Mondraberry.com



Arrasateko Amaia aretoa bete egin zen pasa den ostiralean.